DIPLOMATIKOA

BOOKTEGI

MACHADO DE ASSIS

ITZULPENA: UNAI BEGIRISTAIN

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MACHADO DE ASSIS

diplomatikoa

Itzulpena:

Unai Begiristain

Egilea

Machado de Assis 1839an jaio zen, Rio de Janeiroko auzo txiro batean. Unibertsitate-ikasketarik gabeko gizona, bere kontura hasi zen idazten: olerkiak eta kontakizun erromantikoak lehendabizi, saiakerak eta antzezlanak geroxeago. 1881ean idatzi zuen erabateko berrikuntza ekarri zuen lehendabiziko eleberria: Memórias póstumas de Brás Cubas.

Umore zorrotzez egindako azterketa psikologikoak dira nagusi Machado de Assisen lanetan, eta gogotik astintzen ditu garai hartako gizartearen eta burgesiaren jokabideak.

Kritikari askoren esanetan, Machado de Assisekin hasi zen horren ezaguna den Brasilgo eta Hego Amerikako literatura-korrontea: errealismo magikoa.

Euskaraz ere topa daitezke Machado de Assisen zenbait lan. Horietan nabarmentzekoa, On Casmurro (Dom Casmurro), Literatura Unibertsala bildumaren barruan argitaratua.

Kontakizun laburrak ere landu zituen idazle brasildarrak, hizkuntza fina eta jasoa baliatuz landu ere. Várias histórias bildumako ipuin honetan, dotore jasotzen ditu egileak bere ustez batere itxurarik gabeko pertsonaia baten miseriak. Eta, orain-oraingoa ez izanagatik ere, ederki antzematen da gaur egungo Rio de Janeiroko biztanleek zer-nolako umorez eta berezitasunez begiratzen dieten munduari eta mundutarrei.

Diplomatikoa

Neskamea jangelan sartu zen, eta, jendez inguratutako mahaira gerturatuta, ahopean hitz egin zion etxekoandreari. Premiazko zerbaiten eske ari zitzaion, antza, berehalaxe altxatu baitzen etxekoandrea.

—Zain geratuko gara, Adelaide andrea?

—Ez itxaron, Rangel jauna; segi lasai, gero sartuko naiz ni.

Rangel Zorteen liburua irakurtzen ari zen. Orriari bira eman, eta izenburu bat errezitatu zuen: «Inork maite ote zaitu isilpean». Sekulako zalaparta; neska-mutil gazteek irribarre egin zioten elkarri. 1854ko San Joan gaua zen, Mangueiras kaleko etxe batean. João zen etxeko nagusia, João Viegas, eta alaba bat zuen, Joaninha. Urtero-urtero elkartzen ziren senitartekoak eta lagunak; San Joan sua egiten zuten etxe aurrean, ohiko patata erreak jaten zituzten eta zortea irakurtzen zuten. Afaria ere izaten zen, batzuetan dantzaldi eta guzti, baita prenda-jokoren bat ere, guztia familia-giroan. João Viegas eskribaua zen, Gorteko auzitegi zibil batean.

—Goazen. Nor hasiko da orain? —galdetu zuen—. Felismina andreak hasi behar du. Ea inork maite duen isilpean.

Felismina andreak irribarre hits bat egin zuen. Berrogeitaka urteko emakume prestua zen, ez prenda eta ez errenta, eta senar bila bizi zen, bere fedearen disimuluan. Erabateko irtenaldia emanagatik ere, bazen egiarik. Felismina andrea izaki bihozbera eta otzanen eredu agortua zen, gainontzekoei atsegin emateko jaioak diruditen horietakoa. Dadoak hartu eta jaurti egin zituen, konplazentzia fedegabez. Hamarrekoa, entzun ziren bi ahots. Rangelek orriaren barrenera eraman zituen begiak; zenbakiari zegokion laukia topatu, eta barrukoa irakurri zuen: baietz zioen, bazela baten bat, eta igandean topatu behar zuela elizan, mezatara joatean. Mahaikide guztiek zoriondu egin zuten Felismina andrea; irribarre zaputz batek irten zion, bere baitan itxaropenik bazuen ere.

Besteek ere hartu zituzten dadoak, eta Rangelek haien zortea irakurtzen jarraitu zuen, banan-banan. Erabateko elokuentziaz irakurtzen zuen. Noizean behin, betaurrekoak kendu eta patxadaz garbitzen zituen, lihozko zapiaren ertzarekin –lihoa zela erakusteko edo zerion jasmin-usaina zabaltzeko–. Zalea zen manera handiak erakusteko, eta «diplomatikoa» deitzen zioten.

—Tira, diplomatiko hori, segi irakurtzen.

Rangelek inarrosi egin zuen; zorte bat irakurtzea ahaztu zitzaion, beste aldean zegoen nesken mahaira begira baitzebilen. Haietakoren bat gustatzen ote zitzaion? Goazen, bada, zatika.

Ezkongabea zen; halabeharrez, ez bokazioz. Gaztetan, izan zuen maite-jolasik, baina, urteek aurrera egin ahala, handinahiak jo zuen, eta ezkongabe jarraitu zuen, berrogeita bat urtera iritsi arte. Inoiz edo behin ibili zen bere bizi-mailaz gaindiko neskaren baten ondoren, eta esperoan galdu zuen denbora alferrik. Abokatu ospetsu eta aberats baten dantzaldietara ere joan izan zen; agiriak kopiatzen zizkion Rangelek lege-gizonari, eta hark babes handia ematen zion. Dantzaldi haietan, bulegoan bezalaxe, jarrera otzana eta esanekoa izaten zuen; korridoreetan ematen zituen gauak atzera eta aurrera, aretoan zelatan, emakumeak pasatzen ikusiz, hamaika bizkar zoragarri eta gerrialde lirain begiekin janez. Inbidia zien gizonezkoei, eta kopiatu egiten zituen. Burua berotuta eta ausart irteten zen handik. Dantzaldirik ezean, elizako jaietara joaten zen, hiriko neska gazte prestuenak ikusiko ote zituen. Bazekien jauregi inperialeko aretora joaten ere, segizio egunetan, eta adi-adi egoten zen, noiz ikusiko sartzen gorteko dama handiak eta pertsonak, ministroak, jeneralak, diplomazialariak, epaileak eta halakoak. Guzti-guztiak ezagutzen zituen, pertsonak eta zalgurdiak. Dantzaldietatik bezalaxe bueltatzen zen festetatik eta segizioetatik ere: oldartsu, sutsu, kolpe batez fortunari heltzeko prest.

Okerrena da, ordea, poetak zioen hesi hori egoten dela galburuaren eta eskuaren atean, eta Rangel ez zen hesiei jauzi egiteko gizasemea. Irudimenarekin bai, edozer egiten zuen, emakumeak bahitu eta hiriak suntsitu. Makina bat aldiz izan zen Estatuko ministro, eta

emanak zituen hamaikatxo dekretu eta kortesia. Enperadore izateraino ere iritsi zen, egun batez, abenduaren 2an, jauregiko plazako desfiletik bueltan zihoala; iraultza bat irudikatu zuen horretarako, odol pixka bat isurita, ez asko, baita diktadura onbera bat ere, eskribau-lanetako ika-mika txiki batzuei mendeku hartzeko baino ez. Hemen kanpoan, ordea, balentria guztiak alegia huts ziren. Egiaz, otzana eta neurritsua zen.

Berrogei urte eginda, zapuztuta zeuzkan anbizio-itxaropenak; baina jite bertsukoa segitzen zuen, eta, ezkontzeko borondatea izanagatik ere, ezin topatu andregairik. Batek baino gehiagok hartuko zukeen gustu handiz, baina, zuhurtziaren zuhurtziaz, galdu egiten zituen guztiak. Egun batez, Joaninha jo zuen begiz; hemeretzi urte beteak, begi eder eta sosegatuak zituen, gizonezkoekin traturik ezagutzen ez zutenak. Rangelek neska koskorra zenetik ezagutzen zuen; eramana zuen besoetan, Pasealeku Publikoan, baita Lapako gau beroetan ere. Nola hitz egin, ordea, maitasun-kontuez? Baina, bestalde, etxekoekin zituen harremanak zirela eta, gerta zitekeen ezkontza hori taxutzea. Hori edo kito bestela. Orduko hartan, hesia ez zen horren garaia, eta galburua, berriz, txikia; nahikoa zen ahalegin txiki bat egin eta besoa luzatzea, zuztarretik ateratzeko. Rangel lantegi horrekin zebilen azkeneko hilabeteetan. Ez zuen, ordea, besorik luzatzen, aurrez alde guztietara begiratu ezean, inor ba ote zetorren edo; eta, baten bat agertzen bazen, ospa egiten zuen disimuluan.

Luzatzen zuenean, berriz, haize-ufada batek astintzen zuen galburua, edota txori txikiren bat inguratzen zen orri lehorren ingurura. Eta ez zuen besterik behar eskua erretiratzeko. Halaxe eguna joan eta eguna etorri, eta zapuztu egiten zitzaion grina, estualdi-ordu luzeen ondorioz; gerora, itxaropen hobeak etortzen zitzaizkion.

Oraingo honetan, aldean zuen lehendabiziko amodio-gutuna, eskura emateko prest. Izan zituen aurretik ere bizpahiru aukera ederrak, baina beti geroko-geroko. Hain da luzea gaua! Bien bitartean, zortea irakurtzen jarraitzen zuen, profeta baten solemnitatez.

Inguruan, giro alaia zen nagusi. Ahapeka edo algaraka, edo guztiak batera hizketan. Osaba Rufino, familiako adar-jotzailea, batetik bestera zebilen mahaian, luma bat hartu eta

neska gazteei belarri atzean kilimak egiten. João Viegas lagun bat iritsiko zain zegoen amorratzen, Calisto. Non ote zebilen Calisto?

—Tira, faborez, mahaia behar dut; goazen bisiten gelara.

Adelaide andrea zetorren; afaltzeko mahaia prestatzen ari ziren. Guztiak irten ziren, eta ederki asko ikusten zen zeinen liraina zen eskribauaren alaba, oinez zihoala. Rangelek maite-begi handiekin jarraitu zion. Joaninha leihora urreratu zen une batez, prenda-joko bat prestatzen ari ziren bitartean, eta Rangel ere atzetik joan zitzaion; orduantxe zen garaia gutuna emateko.

Pareko etxe handi batean, ospakizun bat ikusten zen, dantzan ari ziren. Begira zegoen neska, eta bera ere begira geratu zen. Leihoetatik, bikoteak ikusten ziren joan-etorrian, kadentziaz; emakumeak zetak eta dentelak soinean zituztela, eta gizonezkoak, berriz, lirain eta dotore, batzuk medaila eta guzti. Inoiz edo behin, diamantezko lepokoren baten bristada, bizkor eta ihesi, dantzan bira hartzean. Bikoteak solasean, txarratelak distiratsu, gizonezkoen buruak inklinatuta, abanikoak astintzen, guztia ere zatitxotan, leihoetatik barrena. Ez zen egongela osoa ikusten, baina asma zitekeen gainerakoa. Berak, behinik behin, guztia ezagutzen zuen, eta dena kontatzen zion eskribauaren alabari.

Baina handikeriaren deabrua, lotan zirudiena, gure gizonaren bihotzean sartu zen pailazokeriak egitera, eta hara non hasi zen neska gaztearen bihotza ere seduzitu nahian.

—Ezagutzen dut nik bat han ederki asko emango lukeena—, esan zuen Rangelek ahopean.

Eta Joaninhak, inozentziaz:

—Zerorri.

Losintxatuta, Rangelek irribarre egin zuen, eta ez zuen asmatu ezer esaten. Morroiei eta gidariei begiratu zien; uniformez jantzita zeuden, kalean taldeka solasean edota

zalgurdien estalpean eratzanda. Gurdiak izendatzeari ekin zion: horrako hori Olindarena, beste hura Maranguaperena. Une horretan, beste bat agertu zen, Lapa kalearen albotik, eta Mangueiras kalean sartu zen. Parean geratu zen: morroiak jaitsi eta atea ireki zion. Kapela kendu eta tentetu egin zen. Barrutik, burusoil bat, buru bat, gizon bat, bi galai, eta, atzetik, aberats jantzitako andre bat irten ziren; atarian sartu, eta barrenean bi lore-ontzi handirekin apaindutako eskailerak igo zituzten, alfonbraz estaliak.

—Joaninha, Rangel jauna...

Prenda-joko madarikatua! Orduantxe zebilkion buruan proposamen bat, igotzen ari ziren senar-emazteen aitzakian, eta natural asko emango zion eskutitza... Men egin, eta neska gaztearen parean eseri zen Rangel. Adelaide andreak zuzentzen zuen prenda-jokoa, eta izenak jasotzen zituen; pertsona bakoitzak lore bat izan behar zuen. Osaba Rufino adar-jotzaileak, jakina, kuia-lorea hartu zuen berarentzat. Rangelek, berriz, hutsaltasunari ihes egin nahirik, buruz konparatu zituen loreak eta, etxekoandreak zer aukeratu zuen galdetu zionean, hauxe erantzun zuen samurtasunez eta patxadaz:

—Gau-lorea, andre hori.

—Okerrena da Calisto ez dagoela hemen! —bota zuen eskribauak hasperenez.

—Etortzekoa al zen?

—Bai. Atzo izan zen notariotzan, apropos joanda, eta esan zidan berandu baina etorriko zela, kontatzeko harekin: zerbait zuen Carioca kalean...

—Barka, hona hemen beste bi lagun gehiago! —entzun zen ozen korridorean.

—Azkenik! Hementxe dugu!

João Viegas atea irekitzera joan zen; Calisto zen. Mutil gazte bitxi batekin zetorren, eta guztiei aurkeztu zien: —«Queirós, Miserikordia Etxeko langilea; ez da nire senitartekoa,

antza badu ere; igual-igualak baikara gu biok...». Barre egin zuten guztiek; Calistoren irtenaldia zen, deabrua baino zatarragoa bera. Queirós, berriz, hogeita sei-zazpi bat urteko mutil ederra zen, ile beltzarana, begi beltzak eta bereziki lerdena. Neska gazteak uzkurtu samarrik geratu ziren; Felismina andreak hartu zuen hitza.

— Prendatan ari ginen, zatozte zuek ere, nahi baduzue —esan zuen etxekoandreak—. Jokatu nahi, Queirós jauna?

Queirósek baiezkoa eman zuen, eta gainerako pertsonak aztertzeari ekin zion. Ezagutzen zituen batzuk, eta pare bat hitz egin zituen haiekin. João Viegasi esan zion aspaldian zuela hura ezagutzeko gogoa, aitak zor zion faboreren bat zela eta, foro-konturen batean. João Viegasek ez zuen gogoan, eta ez zen oroitu zertaz ari zen zehaztean ere; baina gustatu egin zitzaion kontu haren berri izatea, jendaurrean. Guztiei begira geratu zen minutu batzuetan, isilean.

Queirósek bete-betean ekin zion jokoari. Ordu erdia igarotzerako, etxean bezalaxe zegoen. Etorri handiko gizona, zalutasunez mintzo zen, keinu natural eta bat-batekoez lagunduta. Sekulako zigor-errepertorioa zuen prenda-jokorako, eta zoratzen zeuzkan bertaratu guztiak; inork ere ez zituen hobeto gidatzen, horrenbeste mugimendu eta animaziorekin, batera eta bestera joanez, taldeak osatuz, eserlekuei tira eginez, neska-gazteei hitz eginez, txiki-txikitatik elkarrekin jolasean ibilitakoak balira bezala.

—Joaninha andrea, etorri hona, eserleku honetara; Cesária andrea, zatoz alde honetara, zutik, eta Camilo jauna beste ate hartatik sartuko da... Horrela ez: hara, honela, ze bestela...

Eserlekuan tente, harri eginda zegoen Rangel. Nondik nora, ordea, halako aldagoia? Eta aldagoi horrek ekarritako haizeak gizonezkoen kapelak eraman zituen, eta ileak endredatuta utzi zituen pozik eta algaraka zebiltzan neska-gazteak: Queirós gora eta Queirós behera, Queirós bazter guztietan. Rangel harri eginda egotetik mortifikaziora igaro zen. Aginte-makila erori zitzaion eskuetatik. Ez zion begiratu ere egiten, ez zuen barre egiten hark zioenarekin, eta elkor erantzuten zion. Hitzei eutsi eta bere artean

pikutara bidaltzen zuen; tentel eta kaskarintzat zuen, barre eragiten zuen ergeltzat, jaigiroko gauetan guztia izaten baita festa. Baina, bere artean horiek eta okerragoak errepikatzen bazituen ere, ez zuen bake onik. Gorriak ari zen ikusten, bere amodio propioaren barrenean; eta okerrena da Queirósek tankera hartu ziola haren sufrimenduari, eta, are okerrago, Rangel bera ere jabetua zen bestearen oharpenaz.

Rangelek, inon ziren mentura guztiak amesten zituen bezalaxe, mendekuak ere opa zizkion. Bere buruan, txiki-txiki eginda utzi zuen Queirós; ondoren, hondamendi bat bururatu zitzaion, nahikoa zen ondoez bat, gogor samarra, berehala uxatzeko arrotz hura handik. Zer ondoez, gero! Deabru hark gero eta alaiago zirudien, eta txundituta zeukan areto osoa. Joaninha bera, beti horren eratsua izanik, dir-dir zebilen Queirósen eskuetan, gainerako neska-gazte guztiak bezalaxe; eta guztiek ziruditen, gizon eta emakume, haren esanetan. Dantza-kontuak aipatu zituenean, neska gazteak osaba Rufinorengana arrimatu ziren, eta flautarekin kontradantza bat jotzeko eskatu zioten; bakarra, ez ziotela besterik eskatuko.

—Ezin dut, babak min ematen dit.

—Flauta? —oihukatu zuen Calistok—. Eskatu, eskatu Queirósi zerbait jotzeko, orduan ikusiko duzue flauta jotzea zer den... Zoaz eta ekar ezazu, Rufino. Entzun nola jotzen duen Queirósek. Ez dakizue zer-nolako talentua daukan flautarekin! Queirósek Casta Diva jo zuen. Bai kontu barregarria! —Rangelek bere artean—. Kaleko mutiko zapoek ere txistuz jotzen dute eta. Begira-begira geratzen zitzaion, zeharka, ikusteko hura ote zen gizonaren piura; eta ondorioztatu zuen musika-tresna arlotea zela flauta. Joaninhari ere egin zion so, eta ikusi zuen, gainerako guztiak bezalaxe, aho-zabalik zegoela Queirósi begira-begira, abestiaren doinuekin liluratuta, eta izuak hartu zuen, auskalo zergatik. Joaninharen tankera berekoak ziren gainerakoen begitarteak ere, eta, hala, arrotza are gorrotagarriago eginarazi zion zerbait sentitu zuen. Flauta isildu zenean, Joaninhak beste guztiek baino gutxiago txalo jo zuen, eta Rangelek duda izan zuen betiko neurritasun hori ote zen, edota beste zirrara bereziren bat... Gutuna entregatzeko irrikaz zegoen.

Iritsi zen afalordua. Guztiak nahaspilan sartu ziren jangelan, eta, Rangelen zorionerako, Joaninharen pare-parean tokatu zitzaion mahaian; sekula baino ederragoak zituen begiak, inoizko adierazkorrenak, ez zuten betikoak ere ematen. Rangelek isilpean gozatu zituen, eta atzera eraiki zuen Queirós deabru horrek kolpetik suntsitu zion amets hura guztia. Eta, halaxe, berriro ere neska gaztearen alboan ikusi zuen bere burua, alokatuko zuen etxean, eta ametsetako urre guztiekin apaindu zuen bientzako maitasun-habia hura. Loteria ere tokatu zitzaion, eta irabazitako guztia zeta eta bitxitan gastatu zuen, bere emazte eder Joaninharentzat. Rangeltar Joaninha, Rangeltar Joaninha andrea, Joana Rangel Viegas andrea, edo Joana Cândida Rangel Viegas andrea... Ezin, bada, Cândida kendu...

— Tira, egin dezagun topa, Diplomatiko jauna... Bota zure horietako bat...

Rangel esnatu egin zen; mahai guztia ari zen osaba Rufinoren eskaria errepikatzen; Joaninha bera ere halaxe ari zen; egiteko topa, iaz bezalaxe. Rangelek baiezkoa eman zuen, oilo-hegal hura akabatu orduko egingo zuela. Zalaparta, laudorioak ahopeka; neska gazte batek zioen ez zuela inoiz entzun Rangelen hitzik, eta Adelaide andreak, berriz:

— Ez ala? —galdetu zion harri eta zur—. Ez dakizu zeinen ondo hitz egiten duen, a zer azalpenak, hitzak horren ondo aukeratuta, eta nolako manera dotoreak...

Jaten ari zen bitartean, oroitzapenak ekartzen ari zen, ideia-zatiak, esaldiak eta metaforak taxutzen laguntzeko. Amaitu, eta zutitu egin zen. Kontent ageri zen itxuraz, seguru. Ibili-ibili eginda, ate-joka agertu zitzaizkion. Kito azkenean kontakizunen istilu hura, akabo gatzik gabeko txantxak, eta berarengana gerturatu ziren kontu zuzen eta serioren bat aditzeko. Ingurura begiratu zuen, eta guztien begiak begira-begira ikusi zituen, zain. Ez guztiak, ordea: Joaninharenak Queirósi begira zeuden, eta harenak, berriz, bide erdian zituen bueltan zain, promesaz betetako kabalkadan. Rangel zuri geratu zen. Eztarrian akabatu zitzaizkion hitzak; baina egin beharra zeukan, zain zeuzkan, atseginez, isil-isilik.

Hala-hola hitz egin zuen. Hain zuzen, etxeko nagusiaren eta alabaren alde egin zuen topa. Jainkoaren pentsamendu deitu zion alabari, hilezkortasunetik errealitatera eramana; hiru

urte aurretik ere esana zuen hori bera, ahaztuta edukiko ahal zuten. Familiaren santutegiaz ere mintzatu zen, adiskidetasunaren aldareaz, eta esker-onarenaz, bihotz garbien lorea zela esanez. Zenbat eta kontu pattalagoak, orduan eta esaldi apainagoak eta arranditsuagoak. Hamar minutuko hitzalditxoa bostean akabatu zuen, eta eseri egin zen.

Baina ez zen hor amaitu kontua. Queirós berehalaxe altxatu zen, bizpahiru minutura, beste behin topa egiteko, eta are bizkorrago eta osoago nagusitu zen isiltasuna. Joaninhak bere golkora begiratu zuen, erabat gorrituta, zer esango ote zuen; hotzikara batek astindu zuen Rangel.

—Etxe honetako adiskide entzutetsuak, Rangel jaunak —ekin zion Queirósek— gaur ospatzen ari garen santuaren izena daramaten bi pertsona izan ditu gogoan; nik, berriz, etxe honetako benetako santaren alde egingo dut topa, Adelaide andrea.

Hango txalo-zaparrada! Adelaide andreak, losintxaz, gonbidatu guztien zorionak jaso zituen. Alaba ez zen zorion hutsean geratu. —Ama! Ama! —egin zuen oihu, altxatuz, eta besarkatu eta hiruzpalau aldiz musu eman zion; sekulako gutuna bi pertsonak irakurtzeko. Rangel suminetik adore-faltara igaro zen, eta, afaria amaitu ostean, erretiratzea pentsatu zuen. Baina itxaropenak, begi berdeak dituen deabru horrek, gelditzeko eskatu zion, baita geratu ere. Auskalo! Guztia iragankorra zen, gau bateko kontua, sanjoanetako maitasuna; azken batean, bera familiako adiskidea zen, eta estimu handitan zuen sendiak; nahikoa zen neska gaztearen eskua eskatzea, lortzeko. Eta gerta zitekeen Queirós delako horrek ez edukitzea ezkontzeko bitartekorik. Zer enplegu-klase zeukan Miserikordia Etxean? Bigarren mailako lanen bat akaso... Eta, horretan zebilela, zeharka begiratu zien Queirósen jantziei; alkandoraren brodatuak miatu zituen, prakak belaun-parean urratuta ote zeuzkan, ea zapatak zer moduz, eta azkenean aitortu zuen mutil dotorea zela; baina ziurrenik diru guztia horretan xahutu bide zuen, eta ezkontzea ez da berriketako kontua. Akaso, gainera, ama alarguna izango zuen, eta arreba ezkongabeak... Rangel bakarra zen.

—Osaba Rufino, jo kontradantza bat.

—Ezin dut; digestioa mozten da afalostean flauta joz gero. Goazen jokora.

Rangelek esan zuen ezin zuela jokatu, buruko minez zegoela: baina Joaninha gerturatu zitzaion, eta berarekin jokatzeko eskatu zion, bikoteka. —«Erdi bana egingo dugu », esan zuen neskak irribarrez; Rangelek ere barre txikia egin eta onartu egin zuen. Bata bestearen ondoan eseri ziren. Joaninhak kontuak esaten zizkion, barre egiten zuen, begi eder haiek altxatzen zizkion, ezinegonez, burua alde guztietara astinduz. Rangel hobeto zegoen, eta luze gabe ederki sentitu zen. Arduragabe zebilen, zenbaki batzuk ahazten zituen, eta Joaninhak hatzez seinalatzen zizkion —ninfa baten hatzak, zioen bere artean— ; deskuiduak nahita egiten hasi zen, neskaren hatzak ikustearren, eta entzuteko nola esaten zion: «Despistatuta zabiltza; gure dirua galduko dugu, gero!».

Rangelek pentsatu zuen gutuna mahaipetik ematea; baina, adierazi gabeko maitasuna izanik, agian izuak hartuko zuen eta guztia pikutara bidali; abisatuta zegoen egin beharra. Mahaiaren bueltan begiratu zuen: buru guztiak kartetara begira zeuden, zenbakiei adi-adi so. Orduan, eskuinerantz egin zuen, eta Joaninharen kartetara eraman zituen begiak, zerbait egiaztatzeko bezala.

—Bi dauzkazu dagoeneko, esan zion Rangelek.

—Bi ez, hiru.

—Hiru, egia da, bai. Hiru. Entzun...

—Eta zuk?

—Nik bi.

—Zer bi, gero? Lau dira eta!

Halaxe ziren; makurtuta erakutsi zizkion, belarriarekin ia Rangelen ezpainak ukituz; ondoren, begira geratu zitzaion, barrez eta buruarekin keinu eginez: «Ene, ene!».

Rangelek erabateko pozez entzun zuen hori; hain zen goxoa haren ahotsa, horren ezaguna adierazpide hura, gerritik heldu eta ameskerien betiereko balsari ekin zion. Etxea, mahaia, gonbidatuak, guztia desagertu zen irudimenaren ahalmenez, eta errealitate bakarra geratu zen, biak batera, espazioan biraka, eurei argi egitearren apropos piztutako milioika izarren azpian.

Ez karta eta ez ezer. Goizaldera, guztiak leihorantz gerturatu ziren, pareko dantzaldiko gonbidatuak irteten ikustera.

Rangelek atzerantz egin zuen, izuaren izuz. Elkar hartuta ikusi zituen Queirósen eta Joaninha ederraren hatzak. Azalpen bat asmatu nahi izan zuen, iruditu egingo zitzaiola, baina, bata uxatu orduko, beste hainbat eta hainbat etortzen zitzaizkion, sekula amaitzen ez diren olatuen tankeran. Ezin zuen ulertu nola zen nahikoa gau bakar bat, ordu gutxi batzuk, bi izaki hala lotzeko; baina horixe erakusten zuten bien jarrerek, bien begiek, hitzek, barreek, baita goizaldean agur esateko modu malenkoniatsuak ere.

Lur jota irten zen. Gau bakar bat, ordu batzuk baino ez! Berandu heldu zen etxera, eta ohean etzan zen, ez lotarako, negar-zotinka hasteko baizik. Bakar-bakarrik zela joan zitzaizkion itxurakeriak, eta jada ez zen diplomatikoa, memelo hutsa baizik, etxean bueltaka, garrasika, umeen pare negarrez, erabateko atsekabez, udazkeneko maitasun triste horregatik. Deabru gizajo hura, maitakeriaz, sortasunez eta itxurakeriaz egina, finean, Otelo bezain zorigaiztokoa zen, eta akabera are krudelagoa izan zuen.

Otelok garbitu egin zuen Desdemona; gure maitemindua, ordea, inork sekula pasioaren izpirik susmatu ere egin gabe, Queirósen aitabitxi izan zen, handik sei hilabetera Joaninharekin ezkondu zenean.

Ez zioten jitea aldatu ez gertakariek, ez urteek. Paraguaiko gerra hasi zenean, askotan pentsatu zuen ofizial joatea, boluntario; ez zuen sekula egin. Baina irabazi zituen guduren batzuk, eta brigadier amaitu zuen.